



MENDIALDEA ESKUALDEA ETA AKTIBAZIO SOZIOEKONOMIKOAREN PLANA 2023-2025 2024 MEMORIA



MENDIALDEA ESKUALDEA ETA AKTIBAZIO SOZIOEKONOMIKOAREN PLANA 2023-2025

2024 MEMORIA

AURKIBIDEA

1.- SARRERA.....	2
1.1.- AKTIBAZIO SOZIOEKONOMIKORAKO PLANA ETA MIMUKAI	2
1.2.- PLANAREN HELBURUAK ETA SEKTORE EKONOMIKOAK	2
1.3.- GOBERNANTZA.....	5
1.4.- BEHATOKI SOZIOEKONOMIKOKO PARTAIDEAK	6
2.- AKTIBAZIO PLANA 2024.....	7
2.1.- INDUSTRIA.....	7
2.2.- ENERGIA BERDEA	9
2.3.- ELIKADURA JASANGARRIA.....	11
2.4.- MERKATARITZA-OSTALARITZA	14
2.5.- TURISMO JASANGARRIA.....	16
2.6.- MIMUKAI PROIEKTUA.....	18
2.7.- GARAPEN AGENTZIA.....	22
3.- KOMUNIKAZIOA.....	23
3.1.- MIMUKAI.EUS WEBGUNEA ETA DIFUSIORAKO TRESNAK	24
3.2.- SARE SOZIALAK: FACEBOOK ETA INSTAGRAM	25
3.3.- WHATSAPP TALDEAK ETA TOKIKO KOMUNIKAZIO-SAREAK.....	26
3.4.- KOMUNIKABIDEETAN HILABETEKO KOLABORAZIOA	26
4.- LAN-TALDEA.....	28

1.- SARRERA

Nafarroako Toki Administrazioak onartutako 2019ko apirilaren 4ko 4/2019 Foru Legearen arabera Larraun-Leitzalde eskualdea (guk Mendialdea deritzoguna) hamar udal hauek osatzen dute: Areso, Araitz, Arano, Basaburua, Betelu, Goizueta, Imotz, Larraun, Leitza eta Lekunberri.

1991tik Cederna Garalur Elkartek lanean dihardu, bere bazkideen eskutik, Nafarroako Mendialdearen garapen endogenoa eta iraunkorra sustatzeko helburuarekin. Orduztik Mendialdea eskualdean garapen agentea egon da lanean. 2019 urtean eskualdea eta lurraldeko elikadura-sistema indartzeko aukera suertatu zen eta "Mendialdea Elikadura" proiektua jarri zen abian, Elikadura dinamizatzailerak kontratatuz.

Proiektu honen emaitza onak ikusita, urrats bat gehiago eman da Nafar Gobernuak Garapen Ekonomikoko Departamentuaren laguntzarekin, Mendialdearen Aktibazio Sozioekonomikorako Plana garatzeko. Egun martxan dagoen Plan honekin lehen sektorean egindako ahalegina indartzen da, eskualde-mailan eragina duten proiektuak garatuz, besteak beste, Mimukai proiektua eta zentroa.

1.1.- AKTIBAZIO SOZIOEKONOMIKORAKO PLANA ETA MIMUKAI

Mendialdeko garapen sozioekonomikoaren egitura gisa aurkeztu den Planak, eskualdeko ekimen nagusiak antolatu eta orientatzeko gaitasuna dauka. Planaren bidez hainbat proiektu egituratu dira azken urteetan lurraldearen ezaugarri eta erronkei erantzuteko asmoz.

Plana ez da dokumentu estrategiko bat soilik, baizik eta eskualdeko eragile sozioekonomikoen arteko lankidetzak sustatzeko markoa ere bada. Bertan txertatzen dira eskualdearen aktibaziorako eta jarduerak ekonomikoak indartzeko baliabideak, hala nola, Mimukai proiektua.

Mimukai proiektua Planaren baitan kokatzen da eta lurraldeko garapen estrategikoaren tresna praktikoa dela, planaren zehakako proiektua. Bertan ekintzailak eta enplegurako formakuntzak, aholkularitzak eta bestelako jarduerak gauzatzen dira. Esan dezakegu Mimukai, alde batetik, aktibazio planaren ildo nagusietariko bat dela eta bestetik, planaren eguneroko dinamikan gauzatzen diren ekintzen espazio zehatza dela.

1.2.- PLANAREN HELBURUAK ETA SEKTORE EKONOMIKOAK

Mendialdeko Aktibazio Sozioekonomikorako Planaren helburuak ikuspegi estrategiko, parte-hartzaile eta integratu batetik eratu dira. Planaren norabidea eta jardun ildoak definitzen dituzte eta lurraldearen garapen jasangarria eta kohesionatua bultzatzeko tresna gisa ulertzen dira.

HELBURU OROKORRA	
ESKUALDEKO GARAPEN SOZIOEKONOMIKO ADIMENTSUA ETA JASANGARRIA BULTZATZEA	
HELBURU ZEHATZAK	DESKRIBAPENA
Eskualdeko ekoizpen sarea indartzea eta dinamizatzea	Tokiko enpresen lehiakortasuna eta sektoreen arteko sinergiak sustatzea
Kalitatezko ekintzailatza eta enplegua bultzatzea	Bereziki gazteak eta emakumeak protagonista izango diren lan-aukera berriak sortzea
Elkarlanerako aliantza publiko-pribatuak sustatzea	Lankidetzaren eredu berriak garatu sektore eta eragile desberdinen artean
Eskualde-ikuspegia eta kohesioa hobetzea	Eskualdeko integrazioa eta kohesioa hobetu, toki-erakundearen, ekoizpen-sektorearen, hezkuntza-eragilearen eta herritarren arteko gobernantza eredu parte-hartzailea garatuz
ZEHARKAKO ARDATZAK	
Genero-ikuspegia	Emakumeen parte-hartzea eta lidergoa sustatu eta genero arrakala murriztu.
Digitalizazioa	Produktibitatearen eraginkortasuna hobetu: enpresen kudeaketa eta prozesuen automatizazioa, aurreratutako teknologietan oinarritutako soluzio digitalen garapena eta ezarpena, etab.
Jasangarritasuna	Ekoizpen sistema jasangarriak eta baliabideen erabilera eraginkorrak sustatu, ingurumenaren gaineko eragina murriztuz eta bioekonomian eta zirkulartasunean oinarritutako negozio eredu berriak ezarriz.

Goiko helburuetan oinarrituta, lurraldearen egungo erronkei eta garapen-aukerari erantzuteko palanka nagusi gisa, 2023-2025 urteen artean lantzeko bost sektore ekonomiko estrategiko identifikatu ziren. Sektore hauek tokiko ezaugarrien, baliabideen eta potentzialtasunen arabera hautatu ziren eta goiko helburu nagusietan oinarrituz, sektore ekonomiko bakoitzerako helburuak garatu dira:

SEKTOREA	HELBURU NAGUSIAK	HELBURU ZEHATZAK
INDUSTRIA	1. Tokiko eta kalitatezko enplegua bultzatzea	• Prestakuntza eta Orientazioa • Ekintzailletza sustatu • Ekonomia-jardueretarako industrialdeak eta azpiegiturak sustatu
	2. Industrien lehiakortasuna hobetzea	• Enpresa-jarduera ahalbidetu • Energia-efizientziari eta ekonomia zirkularrari bultzada • Sinergiak sortu eta aprobetxatu
ENERGIA BERDEA	1. Energia berdearen proiektu berriak eta ekintzailletza sustatzea	• Baliabide endogenoak erabiliz, energia berdea eta ekintzailletza bultzatu • Ekonomia zirkularra bultzatu • Sektoreko giza baliabideen, ekonomia-baliabideen eta azpiegituren ahalmena bultzatu
	2. Energia aurrezpena eta efizientzia hobetzea	• Energia-komunitateak eta eskari-agregatzaileak bultzatu • Sentsibilizazioa, kontzientziazioa eta aholkularitza
ELIKADURA JASANGARRIA	1. Nekazaritzako elikagaien sektorearen lehiakortasuna eta errentagarritasuna hobetzea	• Balio-katean integratu. • Baliabideen aprobetxamendua bultzatu. • Enpresetan ekintzailletza eta berrikuntza bultzatu. • Formakuntza eta aholkularitza.
	2. Ekoizpen ekologikoa eta kontsumo-eredua aldatzea bultzatzea	• Sektorearen sentsibilizazioa bultzatu. • Lurraldeari lotutako ekoizpena sustatu.
MERKATARITZA-OSTALARITZA	1. Lehiakortasuna hobetzea	• Txostena eta azterketak egin. • Ekintzailletza, lehiakortasuna eta formakuntza.
	2. Merkaturatzea sustatzea	• Eskualdeko elkartze dinamizatu bultzatu. • Sektoreen arteko lankidetzak sustatu.

		• Sektorearentzako komunikazio-estrategia bat sortu
TURISMO JASANGARRIA	1. Eskualdeko turismoa sustatzea	• Turismo-produktua garatu. • Komunikazioa. • Formakuntza eta berrikuntza sustatu. • Ekintzailatza sustatu.
	2. Eskualde-ikuspegia sustatzea	• Sareko lana sustatu. • Jasangarritasuna sustatu.

1.3.- GOBERNANTZA

Mendialdeko Aktibazio Sozioekonomikorako Planaren garapena eta jarraipena bermatzeko, gobernantza-eredu egituratua ezarri da. Eredu honek parte-hartzea, jarraikortasuna eta sektoreen arteko koordinazioa lehenesten ditu.

Gobernantza-egitura malgua eta dinamikoa izateko diseinatu da, eragileen beharren eta lurraldeko egoeren arabera egokitzeko aukera ematen duena. Ondorengo taulan egitura ikus daiteke:

ORGANOAK ETA KONPOSAKETA	EGINKIZUNAK	BILEREN MAIZTASUNA
Behatoki Sozioekonomikoa - Eskualdeko eragile esanguratsuak - Lurraldez gaindiko eragile esanguratsuak	Planaren gobernantza orokorra. Funtzio estrategikoa dauka: Ekintza politiko eta teknikoak bideratzeko Planaren helburuen jarraipena egin, ikuspegi partekatu batetik.	Urtean behin gutxienez eta beharrezkoa denean.
Talde Eragilea - Eskualdeko 10 udalak - Plazaola Partzuergo Turistikoa - Cederna Garalur Elkarte	Cederna Garalurrek dinamizatuta, talde honek prozesuaren jarraipen operatiboa egiten du, eguneroko erronkei eta proposamenei erantzuteko.	Hilean behin edota beharrezkotzat jotzen denean.
Foro Sektorialak - Elikadura Mahaia	Eskualdeko sektore edo gai zehatzei buruzko eztabaida eta proposamenak lantzeko espazioak dira. Foro hauek eragile publiko eta	Urtean bitan gutxienez edota beharrezkotzat jotzen denean.

	pribatuen parte-hartzea sustatzen dute eta tokiko ezagutza eta esperientzia baliatzen dituzte Plana aberasteko.	
Talde dinamizatzailea* - Cederna Garalur Elkartea	Planaren diseinua, dinamizazioa eta kudeaketa koordinatzeko eragile nagusia. Prozesuaren gidaritza tekniko eta sozialaren arduraduna.	Cederna Garalur lan-taldearen etengabeko dinamizazioa.

*Talde dinamizatzaileari buruzko oharra:

- Plazaola Partzuergo Turistikoa, turismo sektorean jasotako helburu eta ekintzen dinamizazioa eta kudeaketaren arduraduna da.
- Cederna Garalur lan-taldearen barrenean, Mendialdea agentziako garapen agentea ere sartzen da, Planarekin etengabeko lankidetzat bait dago. Memoria honetan agentearen lanketa ere aurkezten da.

1.4.- BEHATOKI SOZIOEKONOMIKOKO PARTAIDEAK

	Eragilea
Udalak	Araitz
	Goizueta
	Imotz
	Basaburua
	Arano
	Areso
	Lekunberri
	Leitza
	Beteluko udala
	Larraungo udala
Eskualdeko eragileak	LeitzEko K.T.
	Araxes Garaiko Mank.
	Habelarte
	Plazaola Partzuergoa
	Kaxkabeltza
	ASLANA
	Goienar
	Euskara Mank
	Mendialdea Mank
	Berdintasun zerbitzua
	Amazabal BHI
	Zaindu Elkartea
	Pauma
Bestelakoak	INTIA
	GAN-NIK
	SNE-NL

2.- AKTIBAZIO PLANA 2024

2.1.- INDUSTRIA

Industria Lekunberri eta Leitza bezalako udalerrietan bereziki garatuta dago eta Arano, Areso, Betelu, Basaburua eta Goizueta herrietan ere presentzia dauka. Halere, sektore honen baitan eskualdeko enpresak hartzen dira kontutan orokorrean.

1. HELBURUA: TOKIKO ETA KALITATEZKO ENPLEGUA BULTZATU

- **Poligono industrialen sustapena**
 - Cederna Garalurrek eta Sodenak elkarlanean jardun dute Mendialdeko industria-poligonoak bultzatzeko. Poligonoko enpresekin harremanetan jarri gara azpiegituren arazoak identifikatu eta iritziak jakiteko.
 - Enpresa berriak erakartzeko asmoz Indusland plataformara informazioa igo da eskualdeko lurzoru eta pabiloi erabilgarrien berri emateko.
<https://investinnavarra.com/>
- **Ekonomia zirkularren sustapena** <https://navarrazirkular.es/>
 - Diagnostikoa Lekunberri, Leitza eta Areso poligonoetako enpresetan egin da. Horretarako Bilibin enpresaren asistentzi teknikoa kontratatu da.
 - Helburu nagusiak hauek izan dira:
 - Hondakinen berrerabilpen aukerak identifikatzea.
 - Ekonomia zirkularreko proiektuak bultzatzeko oinarriak jartzea.
 - Zortzi estrategia identifikatu eta zehaztu dira ahuleziak gainditu eta jarduera onak indartzeko:
 1. Ontzien ekodiseinua txertatu ekoizpenaren balio-katea hobetzeko.
 2. Ontzien estandarizazioa landu berrerabilpena eta birziklapena errazteko.
 3. Hondakinetatik balio altuko azpiproduktuak garatu.
 4. Lohien aprobetxamendua garatu beste arlo batzuetan baliabide bihurtzeko.
 5. Bero/Hotz sareak industrian txertatu.
 6. Produkzio prozesuen efizientzia hobetu.
 7. Desmontaje eta remanufakturatze prozesuan diseinua kontutan izan produkzio katearen efizientzia hobetzeko.
 8. Trazabilitatea eta pasaporte digitala ezarri piezen bizi-zikloa luzatu eta balioa maximizatzeko.

- Diagnostikoaren emaitzen aurkezpena azaroaren 28an egin zen Mimukai zentroan. Sodenak ere parte hartu zuen.



Industriako ekonomia zirkularren diagnostikoaren aurkezpena, Mimukaien

2. HELBURUA: INDUSTRIEN LEHIAKORTASUNA HOBETZEA

- Urtean zehar komunikazioak bidali zaizkie eskualdeko enpresei, laguntzak, formakuntzak eta praktika-aukerei buruzko informazioarekin.
- Enpresa eta ikasleen arteko praktika-loturak sustatu dira tokiko talentua industrian integratzeko. Horretarako Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta eskualdeko enpresak kontaktuan jarri ditugu eta unibertsitatetik heltzen zaizkigun eskariak enpresei jakinarazten dizkiegu.
- Formazio-saioak eta informazio-ekintzak antolatu dira enpresen gaitasun berritzailea sendotzeko: orga jasotzaile kurtsoak, Polo Iris-eko informazio saioa, etab...



Negozioen digitalizazioari buruzko tailerra (Polo Iris), Plazaolan

- Enprekin bisitak eta bilerak egin dira beraien erronkak, gaitasunak eta premia zehatzak jasotzeko eta beraiekin harremana sendotzeko: Mekatar, Envasados EVA, Agrozumos, MYM Fundiciones, Norcaucho, Suakontrol, Indelaminas, Alpa Aluminio, Koma Food Packaging, Euskoplast, Lecta, Hierros Leitza eta Maderas Larreta. Nafar Lansareak Ilundain Fundazioaren bitartez eskeintzen duen enpresen prospekzioaren zerbitzuarekin elkarlanean egindako ekimena da.

2.2.- ENERGIA BERDEA

Jasangarritasun energetikoa lortzeko bidean lurraldearen baliabide endogenoak aprobetxatzea da helburua. Horrela, 2024an eskualdeko biomasa baliabide gisa garatzeko eta enplegua sortzeko proiektu estrategikoa martxan jarri da.

1. HELBURUA: ENERGIA BERDEAREN PROIEKTU BERRIAK ETA EKINTZAILETZA SUSTATZEA

- **Eskualdeko Biomasa proiektuaren bideragarritasunaren azterketa**

Proiektua Cederna Garalurrek gidatu du, LurGeroa enpresaren bitartez.

Helburua: Energia-sistema autonomoago baterantz aurrera egiteko basotik sortutako energia erabiltzeko eskualdeko potentziala zehaztu.

Hiru ardatz nagusi aztertu dira:

- **Ardatz tekniko-ekonomikoa:**

- Baliabideen eskuragarritasuna, prozesaketa eta banaketaren kostuak eta inbertsioen errentagarritasuna aztertu dira.
- Baso-azalera kontabilizatu eta egurra ekoiztu eta eraldatzeko prozesua definitu da.
 - Eraldatzeko planta eta bi bero sareren bideragarritasunak aztertu dira, urtero zenbateko tonelaje minimoa prozesatu beharko litzatekeen kontutan hartuta.

- **Ardatz juridikoa:**

- Nafarroako baso-ondarea babestu eta garatzeari buruzko foru araudiaren azterketa egin da (13/1990 Foru Legea eta 280/1990 Foru Dekretua).
- Ustiapenean erabili daitezkeen forma juridiko desberdinak aztertu dira.
- Identifikatutako erronka: Biomاسaren erosketa, kontratazioa edo esleipena kudeatzeko formula juridikoa aurkitu behar da.

- **Ardatz instituzionala eta komunitarioa:** Udal eta kontzejuen parte-hartzea sustatu da. Lau bilera egin dira informazioa partekatzeko eta proiektuaren gaineko iritziak jasotzeko.



Biomasaren inguruko bilera kontzeju eta udalekin, Gabarin

Hurrengo urteei begira, hainbat ekintza egingo dira biomasaren inguruko lan-ildo batzuetan:

- Kontzeju eta udalerriekin lanketan jarraituko dugu baliabide honen hornidura bermatzen saiatzeko
- Egurzaleekin jarriko gara kontaktuan proiektu honen nondik norakoak azaltzeko, izan ere, proiektu hau publiko-pribatua izatea bermatu behar da.
- Finantziamentu iturriak aztertuko dira eta enpresekin jarriko gara kontaktuan energia termikoaren eskari industrialak ezagutzeko.

2. HELBURUA: ENERGIA AURREZPENA ETA EFIZIENTZIA HOBETZEA

Oficina de Transformación Comunitaria (OTC) zerbitzua eskualdean

<https://otcnavarra.es/>

Energia berriztagarriaren inguruko proiektuetan laguntzeko, Nasuvinsak lagunduta OTC zerbitzua Cedernako lurralde osoan eskaintzeko bi teknikari daude lanean. Zerbitzu honek ondorengo helburuak ditu:



- Komunitate energetikoak sustatu eta dinamizatu herritarren eta udalen parte-hartzearekin batera.
- Proiektuen garapen faseetan aholkularitza eta laguntza eskaini.
- Formakuntza eta sentsibilizazio ekintzen bidez energia trantsizioaren kultura hedatu.

2024eko udan hasi zen zerbitzua eta eskualdean hurrengo gauzak egin dira:

- Goizukoop herri kooperatiba komunitate energetiko bihurtu da.

- Leitzeko EBK, bigarren instalakuntza bat egitea aztertzen ari da.
- OTC-tatik asistentzia tekniko bat eskatuko da biomasa komunitate energetikoetan nola integratu aztertzeko.

2.3.- ELIKADURA JASANGARRIA

Mendialdean elikadurak funtsezko rola betetzen du bai garapen ekonomikoan, bai identitate kulturean. Helburua da tokiko elikadura-sistema sendo, iraunkor eta kohesionatua eraikitzea tokiko ekoizleak, kontsumitzaileak eta erakundeak sarean jarritz eta lurralde ikuspegitik lan eginez.

1. HELBURUA: NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN SEKTOREAREN LEHIAKORTASUNA ETA ERRENTAGARRITASUNA HOBETZEA

- Bertako produktuen katalogoa egin da. [Mendialdeko elikagaien katalogoa](#)
 - Apirilak 25ean bere aurkezpena egin zen Plazaolan eskualdeko herri eragileekin. Saio honetan urtean gutxienez otordu bat antolatzen dutenek bertako produktuak txertatzeko dinamika egin zuten.



Eskualdeko elikagaien katalogoa eta Plazaolan egindako aurkezpena

- Katalogoa eskualdeko txoko desberdinetan zabaldu ziren fisikoan eta on-line: Plazaola, udala, ikastetxeak, mankomunitateak, Mimukai, landaetxeak, herri eragileak, Habelarte, Kontsumo taldeak, ostatu eta dendetan. Azken hauetan, katalogoan agertzen den produkturen bat baldin bazuten pegatina bat eman zitzaien. Denden kasuan gainera, apaletan elikagaiak identifikatzeko kartel batzuk banatu zitzaizkien.



• Azoka Ibiltaria

Eskualdeko 9 herritan egin ziren eta azoka gehienetan postuez gain ekintza bateragarriak ere antolatu ziren:

Apirilak 21 Arribe (Araitz)

Maiatzak 12 Gorriti (Larraun)

Ekainak 8 Goizueta

Ekainak 30 Latasa (Imotz) + xenden eguna

Irailak 1 Lekunberri+nekazal eguna

Irailak 8 Leitza+talo eguna

Urriak 13 Areso'+ erakusketa: Herriko baserriak

Azaroak 3 Jauntsarats (Basaburua) + gaztain eguna

Abenduak 1 Betelu + herriko helduei omenaldia (Kultura astea)



Eskualdeko azoka ibiltarien kartelak

• Lurren azterketa

Mendialdeko 6 partikular lurren azterketa egin zen UPNAkoekin batera: Leitza-Ezkurra; Lekunberri; Etxarri- Larraun (2 pertsonai), Muskitz (Imotz) eta Arraratsen (Basaburua).

• Aholkularitza teknikoa

Baratza eta frutagintza ekologikoan INTIAk 5 ekoizleri aholkularitza eman zien: Leitza; Lekunberri; Etxarri-Larraun, Muskitz (Imotz) eta Arraratsen (Basaburua).

2. HELBURUA: EKOIZPEN EKOLOGIKOA ETA KONTSUMO-EREDUA ALDATZEA BULTZATZEA

- **Elikadura mahaia:** Urtean zehar elikadura mahaia dinamizatu da. Guztira lau bilera egin dira eskualdeko eragileekin. Urtarrilean, martxoan, maiatzan eta urrian.
- **Jardunaldiak**
 - Balio natural handiko sega-belardiak hitzaldia Larraunen GAN-NIK-ekin batera.
 - Gaztainadien inguruko formakuntza Basabuan INTIA-rekin elkarlanean.
 - Ekobaratza formakuntza Lekunberriko baratze komunitarioan.
- **Jangela kolektiboei buruzko proiektu pilotoa.**

Elikadura osasuntsu eta jasangarri batera transizionatzeko tokiko eskaria eta eskaintza artikulatuz, Lekunberri-Larraungo eguneko zentroan proiektu pilotoa egin zen, eta Zaindu Leitzaldearen elkartek martxan jarri duen bazkarien proiektuaren azterketa ere egin zen.



Jangela kolektiboei buruzko bilera

- **Eskolentzako bisitak**

Proiektuan parte hartzen dutenak:

- Ekoizle eta eraldatzaileak (Leitza, Larraun, Araitz, Imotz eta Lekunberri): Gorritz Baserria, Lezaetako ogia, Bikain gaztak, Antsonea gaztak, Ekosagar, Arteta arditegia.
- Plazaola Partzuergo turistikoa.
- Eskolak: Nazabal (Areso), Araxes (Betelu), A.Narbarte Xalto (Goizueta), Erleta (Leitza), Amazabal Instituta (Leitza) eta Ibarberri (Lekunberri).

2.4.- MERKATARITZA-OSTALARITZA



Tokiko merkataritzak funtsezko garrantzia du Mendialdeko ekonomian eta gizarte kohesioan. Hala ere, erronka handiak ditu aurrean: belaunaldi-erroleboa, kontsumo-ohituren aldaketa eta digitalizazioa.

Cederna Garalurren zerbitzu hau Kontsumo eta Merkataritza Sailak eta Nafarroako 4 garapen agentzien arteko hitzarmen bati esker ematen da. Cedernak bi merkataritza teknikari eskuratu ditu lurralde guztirako eta Nafarroa mailako Merkataritza Sarean parte hartzen dute.

1. HELBURUA: LEHIAKORTASUNA HOBETZEA

- **Komunikazioa eta koordinazioa**

Komunikazioa email, WhatsApp eta triptikoen bidez bideratu da prestakuntza eta laguntzen berri emateko. Tresna digitaletan interesa dutenentzat Denok Bat egitasmoarekin lankidetzat hasi da.

Informazio hori helarazteko merkatariei bisitak egin zaizkie.



Banatutako Sareko zerbitzuen informazio triptikoa.

- **Kudeaketa eta aholkularitza**

Mendialde eskualdean 50 saltoki bisitatu eta 16 kontsulta jaso dira eta 7 bana-banako aholkularitza saio egin dira, on line eta salmentarako espazioak hobetzeko helburuarekin.




Cederna Garalurreko teknikaria ekintzaile batekin eta beste ekintzaile baten denda-ostatua

- **Formakuntzak**

Merkatarien eskakizunetan digitalizazioa eta Kit Digitalaren laguntzaren beharrianak nabarmentzen dira, eta prestakuntza desberdinak eskaini dira Cein, Merkataritza Ganbera eta Enplegu Zerbitzuaren bidez.

- Formakuntzei buruzko informazioa zabaltzeko da orokorrean.
- Unean-unean gauza zehatzak eskatu zituzten saltokiei ere bai: Canva, RRSS,...
- Merkataritza Saretik 2 prestakuntza programa eskeini ziren:
 - "Saltokia" programa – Nola handitu bisitak eta lortu salmenta gehiago zure dendan. Plazaolako Partzuergo Turistikoaren bulegoan.
 - "Digitalizazioa" programa – Digitalizazioak indar handiagoa egiteko gakoak. Mimukaien.



Mimukaien egindako prestakuntza programako kartela eta saioa

2. HELBURUA: MERKATURATZEA SUSTATZEA

- **Etengabeko behaketa eta analisia**
 - Praktika onen bideo bat sortu da 2025ean euskaraz argitaratuko dena. <https://www.cederna.eu/eus/proiektuak/herriko-saltokiak-dinamizatzeko-zerbitzua/>
 - Cederna Garalur webgunean negozio bat martxan jartzeko orduan dauden zalantzei erantzuteko ohiko galderen atala prestatu da laguntzak, digitalizazioa eta belaunaldi-erreleboa bezalako gaiak jorratuz. <https://www.cederna.eu/proyectos/servicio-de-dinamizacion-del-comercio-rural/>
- **Lankidetzeta eta harremanak**
 - Merkataritza-dinamizazio zerbitzua aurkeztu da Mendialdeko erakunde eta sare orokorrean, komunikabide eta sare sozialen bidez.
 - [Instagram kanal berria](#) sortu da
 - Lau kongresutan parte hartu da
 - Hurbileko saltokien parte-hartzea bultzatzeko [INTIAren programan](#) parte hartu da.

- **Nafarroa mailako merkataritza ibiltariei buruzko azterlana egitea proposatu da.** Ezaugarri horri erantzuten dion azoka bakarra dago eskualdean; Leitzako asteko azoka.



Leitzako ostiraletako azoka

2.5.- TURISMO JASANGARRIA



Plazaola Partzuergo Turistikoak dinamizatu eta kudeatutako sektorea da. <https://plazaola.eus/>

Tokiko baliabide natural eta kulturaletan oinarrituta hainbat ekintza burutu dira turismo jasangarria, irisgarria eta erakargarria bultzatzeko helburuarekin.

1. HELBURUA: ESKUALDEKO TURISMOA SUSTATZEA

- **Zikloturismo produktua** egituratu.
 - Zikloturismoa lantzeko lan taldea sortu da.
 - Nafarroako Zikloturismo Produktu kluban sartu da.
 - Bide Berdea seinaleztapena eta irisgarritasuna landu da (PSTD eta Red Explora diru-laguntzak).
 - Ziklotur Plazaola jardunaldien antolakuntza(maiatza eta ekainean).
- **Turismo gastronomikoko produktua** garatu.
 - Enogastronomia lan taldea sortu da.
 - Ekoizleak ikustarazteko hainbat ekitaldi eta jardunaldi antolatu dira: Emakume Artzainen Eguna, Talo Eguna, Nekazari azoka,
 - Mendialdeko Azoka Ibiltariaren komunikazioa, artisauen koordinazioa eta promozioa.
- **Turismoa erakartzeko jarduerak** garatu:
 - Bide Berdeen Eguna, Xenden Eguna, Antzinako azokako, etab.
 - Ekitaldi gehienetan Irisgarritasun eta jasagarritasun planak egin dira.
 - Bisita gidatuak eta tailerrak Aralarren eta Lekunberrin.



Bide berdeen eguneko eta antzinako azokako kartelak

- **Promozio eta komunikazio lanak**

Publizitaterako edukiak eta promozioa landu: komunikabideak, prentsa oharrak, sare sozialak dinamizatu, webgunea eguneratu, ferietara joan, adibidez, Intur(VALLADOLID), Fitur(MADRID), Navartur(PAMPLONA), B-Travel (BARCELONA), ZARAGOZA, RUESGA, UTRECHT, jardunaldi teknikoetan parte hartu, etab).

- **Turismo bulegoa kudeatu**

2024an 13.000 bisitari , 2023ekin konparatuz 2,5% gutxiago. Gletokia ixteak eragina izan du, urritik aurrera geltokiko obrak direla eta tokiz aldatu zan bulegoa Larraungo udalara.

- **Berrikuntza sustatu**

Trantsizio digitalerako pausoak eman dira. GIS sistemaren ezarpena eta baliabideen digitalizazioa.

- **Ekintzailtza sustatu**

Cedernarekin elkarlanean turismoari lotutako ekintzailtzak identifikatu, aholkularitza eman eta Bertan Lan egin eta Bizi proiektuan parte-hartu.

2. HELBURUA: ESKUALDE-IKUSPEGIA SUSTATZEA

- **Sareko lana sustatu**

- Plazaolako Bide Berdearen inguruko mahaia (Gipuzkoa-Navarra artekoa).
- Topaketak eta harremanak beste eskualdeekin (Enkarterrialde, Manchuela, Nekatur).
- Jardunaldi teknikoetan parte-hartu.

- **Turismorako zerbitzuak sendotu**

Partzuergoko kideen eta beste erakunde eta enpresa interesgarri batzuen arteko ahalduntze-saioa, IV. topaketa 2024ko irailean.

- **Formakuntza sustatu** kideen artean batez ere Turismo zuzendaritzatik egiten diren ikastaroak asteero zabaltzen dira (eta beste entitate batzuk)
- **Kide berrien kanpaina** Plazaola Partzuergora erakartzeko. 16 kide berri lortu dira eta 2 udal (Basaburua eta Betelu).
- **Kideekin sentsibilizazioa:** asteroko komunikazioa *newsletter*-an bitartez, bisitak eginez, memoriak landuz, etab.
- **Ingurumena kontserbatzeko jardunbideak sustatu:** mugikortasun jasangarria eta konektibitatea landu dira eta tokiko produktuei balioa emateko lanketa eskolekin, Cedernarekin, etab.

2.6.- MIMUKAI PROIEKTUA




<https://mimukai.eus>

Mimukai proiektua Aktibazio Plana hasi aurretik hasi zen definitzen, eta horrekin batera eskualdeko garapen ekonomikorako funtsezko tresna bihurtu da. Epe ertain-luzerako proiektua da, eskualde-ikuspegia du eta esparru guztiak integratzen ditu. Ildo horretan, hauek dira proiektuaren helburuak:

- Erabiltzaile mota guztientzako lan-espazio erakargarria eta egokia sortzea, langabetuentzako eta ekintzaileentzako, enpresentzako eta langileentzako zerbitzu eta topagune guztiak eskaini ahal izateko.
- Eskualdean hautemandako premiekin bat datorren prestakuntza eskaintzea.
- Eskualde barruko eta sektore arteko enpresen arteko lankidetzaren dinamika sortzea.
- Lankidetzaren dinamika sortzea Amazabal Bigarren Hezkuntzako Institutuarekin, eskualdeko garapen sozioekonomikoa ikasgeletan sartzeko.
- Gizarte-ekonomia eraldatzailean oinarritutako enpresa-eredu berriak sustatzea, inguruko beharrak asetzeko.
- Emakume langile eta ekintzaileen errealitatea aztertzea eta herritarren maskulinizazioa alderantzikatzeko ekintza-plan bat abian jartzea.

Mimukai proiektu bizia da, eta, hautematen diren beharretatik abiatuta, egokitzen doa irtenbide egokiak eskaini ahal izateko. 2024. urtean, lan handia egin da haren lan-eskema

diseinatzen eta bultzatzen ari diren arloak integratzen eta komunikatzen. Beraz, proiektu ondoreko irudiak ondo definitzen du:



<https://mimukai.eus/ezagutu/>

MIMUKAI SAREA

Mendialdeko Aktibazio Planaren diagnostikoan agerian gelditu zen sarea osatzeko beharra zegoela. Eskualdean dauden enpresen arteko ezagutza eta herritarrenganako gertutasuna lantzearen beharra ikusi zen.

Bestalde, eskualdeko enpresa-sarearen eta tokiko erakunde publikoen arteko sinergiak sortzeko premia identifikatu zen. Mimukaitik erronka hauek bere gain hartzen ditu eta elkar ezagutzeko eta elkarlana bultzatzeko bideak eraikitzen ditu:

- **Enpresen datu basea:** Enpresa guztietako enpresen datu basea eguneratu.
- **Merkatarien elkarteak** – Kaxkabeltza eta Lekunberri Mugimenduan: Merkatarien topaketak eta ekitaldi bateratuak egin dira.
- **Zaintza sarea:** Eskualdeko zaintza arloan dauden eragile publiko eta pribatuak elkartuz, solasaldi dinamikoak egin dira zaintza sektoreko eragileekin harremana sortzeko.

<https://mimukai.eus/sarea/>

MIMUKAI ZENTROA

Mimukai zentroa martxan jarri da, espazio bera egokituz behar den erabilerarako. Coworking gunea, bulego itxiak, bilera gelak, formakuntza gela, sukaldea, atsedena hartzeko gunean....

Erabilera dinamizatua martxan jarri da ere, erabiltzaileen tipologia motak sartzeko baldintzak, tarifak eta erabiltzaile-tipologia bakoitzari egokitutako aldeko kontratuak zehaztu dira.

<https://mimukai.eus/zentroa/>

MIMUKAI EKINTZAILETZA

Cederna Garalur eta Narfar Lansarea elkarlanean ari dira ekintzailetzaren aldeko kultura bultzatzen, proiektuen aholkularitza, formakuntza edo jardunaldia. Zerbitzu hau Garapen Agentek ematen du eta hurrengo atalean garatuta dago. Mimukai proiektutik, bere barnean sartzan du eta elkarlan horretatik baina haratago zerbitzua eskaini nahi duelako.

MIMUKAI FORMAKUNTZA

Enplegurako prestakuntza beharrak azertu eta Mendialdean bertan eskaini nahi da beharrezko formazioa. Hori bideratzeko, Amazabal institutuarekin eta eskualdeko enpresa eta eragile desberdinekin lankidetzan ari gara, tokiko enplegua eta ekintzailetza sustatu eta talentua bertan atxikitzeko.

- **Ikastaroak ekarri dira eskualdera:** Hainbat alorretako formakuntzak ekarri dira eskualdera: konpetentzia digitalak, karretila eta biltegiatzea, merkataritza, zaintzari buruzko formakuntzak, etab...

BILTEGIAREN KUDEAKETA ETA ORGA JASOTZAILEAREN ERABILERA AURREALDEAN. 50 ORDU
GESTIÓN ALMACÉN Y MANEJO DE CARRETILLA ELEVADORA FRONTAL. 50 HORAS

- Orga jasotzailearen erabilera 25 h
- Biltzearen kudeaketa 25 ordu
- Manejo de carretilla elevadora 25 h
- Gestión de almacén 25h

23/09/2024 al 04/10/2024
09:00 a 14:00

MIMUKAI
Nave Suizpi 3, Poligono industrial Landa
31880 LEITZA
Ikastaroa ERDERAZ izango da

El curso se impartirá en CASTELLANO

Subvencionado 100%

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

formación profesional Nafarroako Gobernua Hezikuntza Departamentua

laborde heziketa Nafarroako Gobernua Hezikuntza Departamentua

2024-2025 ikastaroak EUSKARAZ

1 LAN KONTRATATZIOA 2024/11/18 – 2024/11/28
Asteartea eta Osteguna 17:30-20:30 (12 ordu)

2 EKINTZAILENTZAKO MARKETING PLANIA: MERKATURATZEA ETA SALMENTEN AURREIKUSPENA 2025/01/14 – 2025/03/06
Asteartea eta Osteguna 18:00-20:00 (32 ordu)

3 ENPRESAREN ZERGA KUDEAKETA 2025/03/11 – 2025/05/22
Asteartea eta Osteguna 18:00-20:00 (42 ordu)

4 MARKETING ZUZENA ETA BEZEROEN FIDELITZATZIOA 2025/05/27 – 2025/06/26
Asteartea eta Osteguna 18:00-20:00 (27 ordu)

Landa industrialdea, Suizpi 3, 1º. 31880, Leitza, Nafarroa. www.mimukai.eus

Izen emateko: comercialnavarra@rodola.com – 690 981 219

RODOLA

servicio navarro de empleo - nafar lanbide

SEPE

Mimukaien egindako ikastaro batzuen kartelak

- **Amazabal Institutoa:** Amazabal Institutoarekin lanketa egin da eta ikasleak tailerrak eta hitzaldiak jaso dituzte: Kooperatibismoko tallerra, emakume ekintzaile baten esperientzia, Nafar Lansareko scape room-a...

MIMUKAI ENPLEGUA

Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren zonifikazioan, Mendialdea eskualdea bi eremutan banatuta dago. Doneztebeko bulegotik Leitza, Areso, Arano eta Goizuetako herriak artatzen dira, eta gainerakoa Iturrondoko bulegotik (Iruña). Horregatik, erronka garrantzitsua da bi bulegoen arteko koordinazio-lana, Mendialdean enplegua sustatzen modu batera edo bestera lan egiten duten eskualdeko gainerako eragileekin. Aurten 2 ekintzak jarri dira martzan, Fundación Ilundain-Harizberriren bitartez :

- **Lan orientazio Zerbitzua.** Leitzan (Mimukai) eta Lekunberrin (Udaletxean)
- **Enpresen prospekzioa.** Enpresak bisitatu bere beharrak jasotzeko eta zer zerbitzuak, programak edo dirulaguntzak izan dezakete enpresak

MIMUKAI SORKUNTZA

Tokian tokiko herritarren gabeziak edo beharrak zeintzuk diren antzeman eta herrietan lan eta bizitzeko aukerak sortu nahi dira. Nola? Gizarte ekimenak oinarri hartuta, eskualdean enplegua sortuz eta enpresa ekimen berriak martxan jartzeko bideak landuz. Mimukai proiektuak bat egiten du Ekonomia Sozial eta Eraldatzailearen filosofiarekin: tokian tokiko egoera kontuan hartu eta errentagarritasun ekonomikora bideratutako irtenbideak aurkitu beharrean, lurraldeari eta pertsonei lotutako enpresa eredu berriak sortu nahi ditu.

Aurten 2 zikloko saioak antolatu dira eskualdean. Udaberrian herriz herri beharrak jasotzen (8 bilerak, 140 partaideak) eta udazkenean ateratako gaien inguruan bilera tematikoak gai horretan gehiago sakontzeko: Elikadura, Zaintza, Energia eta Zerbitzu orokorrak. (4 bilerak, 80 partaideak). Oso arrakastatsua izan da gai honetan lanean hastea, eta bide berdietik jarraitzeko asmoa dago.



1 zikloa. "Herriz herriz": Areson eta Betelun

2.7.- GARAPEN AGENTZIA

Garapen Agentziak lau funtzio nagusi ditu:

1. Ekintzailetza bultzatu eta aholkularitza eman

Ekintzaileei emandako arretak:

	Emandako arretak	Arreta jaso duten pertsonak		Gizarte Segurantzaren emandako altak	
		Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
1. hiruhil.	34	34	21	2	0
2. hiruhil.	31			6	4
3. hiruhil.	21			0	1
4. hiruhil.	38			2	1
GUZTIRA	124			10	6

Arreta emandakoen jardura ekonomiko nagusiak ondorengoak dira:

- Alojamentu turistikoak: 9
- 1.sektorea eta eraldatzaileak: 11
- Ostalaritza: 15.
- Merkataritza: 1.
- Bestelakoak: 16

Arretak herrika:

	EMAKUMEAK	GIZONAK
ARANO	0	0
GOIZUETA	3	2
LEITZA	5	4
ARESO	0	0
ARAITZ	0	0
BETELU	1	0
LEKUNBERRI	6	3
LARRAUN	5	2
BASABURUA	4	5
IMOTZ	1	0
ATETZ	0	0
ULTZAMA	7	4
Cedernakoak ez diren herriak	2	0
Mendialderako baina toki zehatzik gabe	0	1
GUZTIRA	34	21

Martxan dauden enpresei emandako arreta:

	Autonomoak		SL	Koop.	Comunidad de bienes	Fundazioa	Elkartea
	Emaku.	Gizon.					

2025	11	8	3	3	1	1	1
------	----	---	---	---	---	---	---

2. Udalei zerbitzua eman eta beraien proiektu estrategikoak bultzatu

- Ideia zehazten lagundu.
- Diru laguntzak bilatzen lagundu.
- Proiektuen jarraipena egin.
- Beste proiektu antzekoen informazioa erraztu. Inguruko baliabideak ezagutu.
- Nafarroako beste eragile batzuekin kontaktuan jarri.

Udalekin landutako proiektuak hauek dira:

- Areso. Erabilera anitzeko gela (LGP).
- Basaburua. Aizarotzko parkea (LGP).
- Betelu. Eguzki plaken instalakuntza eskolako teilatuan (LGP).
- Goizueta.
- Goinarri proiektua (LGP)
- Urumea Arnastu diagnostikoan parte-hartzea.
- Imotz. Biltegia kudeatzeko hautapen prozesuan parte-hartu.
- Leitza. Geltoki zaharraren ekipazioa (LGP).
- Lekunberri. Lekunberri Merkatarien Elkartea bideratzeko ideia proposamenak eta bilerak.

3. Landa Garapen Programa (LGP edo PDR) diru-laguntzaren kudeaketa

- Urtero irtetzen den deialdia.
- Ekoizpen proiektuak (ekintzaileak) eta proiektu ez produktiboak (udalak, mankomunitateak, fundazioak, elkarteak...) aurkeztu daitezke.

11 proiektu berri landu dira eta 8 proiektu aurkeztu: 6 proiektu publiko eta 2 pribatuak. Denak onartuak.

Proiektuen kokapena:

Publikoak: Areso, Betelu, Leitza, Goizueta, Basaburua eta Ultzama.

Pribatuak: Lekunberri eta Basaburua.

4. Mendialdeko Aktibazio Planean parte hartu

- Lan taldearekin koordinazioa eta elkarlana.
- Ekintzailetzarekin zerikusia duten arloetan elkarlana, bereziki Mimukai proiektuarekin.

3.- KOMUNIKAZIOA

Mendialdeko Aktibazio Sozioekonomikorako Planaren komunikazio-estrategiak gardentasuna, parte-hartzea eta informazioaren eskuragarritasuna sustatzea du

helburu. Horretarako, hainbat tresna eta kanal erabiltzen dira, eragile publiko eta pribatuen arteko koordinazioa eta herritarren inplikazioa bultzatzeko.

3.1.- MIMUKAI.EUS WEBGUNEA ETA DIFUSIORAKO TRESNAK

Mimukai webgunea Planaren komunikazioaren ardatz nagusietako bat da. Erabiltzaileentzako informazio eguneratua eta baliabide erabilgarriak eskaintzen ditu, honako atal hauetan antolatuta <https://mimukai.eus>:

- **Ezagutu:** Mimukai proiektuaren aurkezpena eta helburu nagusiak.
- **Sarea:** Eskualdeko eragileen arteko lankidetzak eta sare-lana sustatzeko informazioa.
- **Zentroa:** Leitzako Mimukai Zentroaren coworking eta formakuntza espazioaren deskribapena, alokatzeko aukerekin eta baliabide teknikoekin.
- **Ekonomia Plana:** Planaren estrategia, sektore nagusiak (industria, elikadura, energia, merkataritza eta turismoa) eta ekintza nagusiak.
- **Kontaktua:** Harremanetarako informazioa eta formularioa.

Webguneak, gainera, sare sozialen bidezko loturak eskaintzen ditu (Facebook eta Instagram), eta erabiltzaileek informazio gehiago jaso edo ekimenetan parte hartu nahi badute, harremanetan jartzeko aukera dute.

Beste aldetik, aurten Mimukai zentroko eskuorria eta kartelak egin dira, espazioaren difusiorako.



Mimukai zentroko kartela eta eskuorria

3.2.- SARE SOZIALAK: FACEBOOK ETA INSTAGRAM

Mimukai proiektuak Facebook eta Instagram sare sozialak erabiltzen ditu eskualdeko garapen sozioekonomikoaren inguruko informazioa zabaltzeko eta komunitatearekin harreman zuzena izateko. Sare sozialen bidez, erabiltzaileek honako informazioa aurki dezakete:

- Planaren eguneraketak eta berriak
- Eskualdeko ekitaldi eta jardueren iragarkiak
- Formakuntza eta tailerren informazioa
- Tokiko ekimen eta proiektuen promozioa

Sare sozialen erabilerak komunikazio dinamikoa eta parte-hartzailea ahalbidetzen du, eskualdeko eragile eta herritarren arteko elkarreragina sustatuz. Gainera, sare sozialen bidezko komunikazioak informazioaren eskuragarritasuna eta gardentasuna indartzen ditu, planaren helburu estrategikoekin bat etorritik.

Mimukai proiektuaren sare sozialetako kontuak:

- Facebook: <https://www.facebook.com/mimukai>
- Instagram: <https://www.instagram.com/mimukai>

3.3- WHATSAPP TALDEAK ETA TOKIKO KOMUNIKAZIO-SAREAK

Komunikazioan tresna informal baina eraginkorrak ere baliatzen dira, hala nola WhatsApp bidezko talde komunikazioa. Kanal hauek eguneroko informazioa modu bizkor eta zuzenean partekatzeko aukera ematen du, eta honela, Planaren berri ematea eta dinamika koordinatzea errazten du.

1. Mendialdeko Aktibazio Sozioekonomikorako Planaren whatsapp taldea.

Talde honetan parte hartzen dute:

- Cederna Garalur-eko teknikariak
- Zonaldeko udal ordezkariak eta Plazaolako teknikaria.

WhatsApp talde hau erabiltzen da, batez ere:

- Planaren ekintzen eta bileren dei azkarrak egiteko.
- Albiste eta informazio interesgarriak elkarbanatzeko.
- Zonaldeko eragileen arteko komunikazio horizontala sustatzeko.

2. Komunikabideekin whatsapp taldea.

Helburua da Planaren informazioa eskualde mailan zabaltzea, herritar guztiengana iristea eta proiektuek duten ikusgarritasuna handitzea.

Honako hauek dira komunikazio honetan laguntzen duten eragileak:

- Tokiko aldizkariak eta irratiak (Karrape irratia, Esan Erran, Ttipi-ttapa, Mailope aldizkaria...).
- Udaleko komunikazio arduradunak, gero zabaltzen dutelako informazioa haien webguneak, sare sozial eta udaletako WhatsApp taldeak.
- Plazaola Partzuergo turitikoa.

Modu honetan, Planaren komunikazioa eskuragarria bihurtzen da, herritarren parte-hartzea errazteko eta lurraldeko kohesioa sendotzeko.

3.4.- KOMUNIKABIDEekin HILABETeko KOLABORAZIOA

Mendialdeko komunikazio-estrategiaren barruan, komunikabideekin hilabeteko kolaborazio egonkorra ezarri da, Cederna Garalurrek eskualdean bultzatzen dituen ekintzak eta proiektuak herritarrei modu zuzen eta eraginkorrean jakinarazteko. Helburua eskualdeko biztanleek informazio eguneratua jasotzea eta ekintza edo ekitaldietan inplikaturik egoteko aukera izatea da.

Horretarako, hilabetero elkarlana egiten da eskualdeko komunikabideekin:

- Karrape Irratia

- Aralar Irratia
- Esan Erran Irratia
- Mailope aldizkaria
- Pulumpe aldizkaria
- Ttipi-ttapa aldizkaria

Elkarlan honen bidez, Cederna Garalurreko ordezkariak edo Planarekin lotutako teknikariak agertzen dira, eskualdeko ekintzen berri emateko: formakuntza-saioak, parte-hartze prozesuak, jardunaldiak, tailerrak, sektore estrategikoei lotutako ekimenak, eta abar.

Formatu hau oso baliagarria da:

- Informazioa bertako hizkuntzan ematen delako (euskaraz).
- Edukia bertako egunerokotasunetik eta errealitatetik gertu eskaintzen delako.
- Herritarren konfiantzazko komunikazio-kanalak direlako.

Hilabeteko kolaborazio horiek komunikazioaren egonkortasuna eta jarraikortasuna bermatzen dute, eta eskualdeko garapen-estrategiaren inguruko transparentzia, gertutasuna eta parte-hartzea indartzen laguntzen dute.




MAILOPE

Mendialdeko Azoka Ibiltaria bueltan da

Mailope Aldizkaria 2025ko apir. 9a, 21:02




Mendialdeko Azoka Ibiltaria 2024. Argazkia: Plazaola Partzergo Turistikoa.

Mendialdeko Azoka Ibiltariak hasiera emango dio seigarren edizioari apirilaren 13an. Beteluko plazan ospatuko da, goizeko 11:00etatik 14:30era. Azokan, tokiko ekoizleen eta artisauen 22 postu izango dira ikusgai.

Aktibazio planeko ekintza bat Mailope aldizkarian argitaratua

4.- LAN-TALDEA

Mimukai proiektua eta Mendialdeko Aktibazio Plana aurrera eramateko, **Cederna Garalur** eta **Plazaola Partzuergo Turistikoa** osatzen duten lantaldeahurrengoa da. Haien arteko elkarlanak eskualdeko sektore estrategikoetan eraginkortasunez aritzea ahalbidetu du.

<https://mimukai.eus/sarea/#lan-taldea>

Taldeko kideak:

- **Elena Irigoien**
Koordinatzailea eta Mimukaiko dinamizatzailea
mimukai@mimukai.eus | 674 02 48 23
- **Andoni Mitxaus**
Energia eta industriako teknikaria
mendialdea-industria@cederna.es | 697 65 56 64
- **Amaiur Unzueta**
Elikadura teknikaria
mendialdea-elikadura@cederna.es | 607 51 55 84
- **Ainhoa Oribe**
Mendialdeako garapen agentea
mendialdea@cederna.es | 617 60 93 28
- **Andoni Martín**
Merkataritza teknikaria
andonimartin@cederna.es | 624 17 89 53
- **Irati Lure**
Jasangarritasun Turistikoaren Lurralde Planak (JTLP)
ilure@cederna.es | 646 67 61 32
- **Maitena Ezkutari**
Plazaola Partzuergo Turistikoa – Kudeatzailea
plazaola@plazaola.org | 948 50 72 05
- **Cederna Antsoain**
Zerbitzu orokorrak
info@cederna.es | 948 20 66 97